

## ARAZI ADITZAREN ERREGIMENA

*Arazi* aditz arazlea izanik beste aditz batekin batean agertzen ohi da, biek bat egiten dutela adizkera kausatiboa moldatuz (1).

*Arazi* ergatiboa manatzen duen aditza da eta, ondorioz, arazlea adierazten duen sintagmari marka ergatiboa lotzen zaio. Ez da horretan arazorik:

— *Jonek jakinarazi du.*

Buruhauste batzuk agertzen dira, ordea, zenbaitetan, *arazi*-rekin batean, honi eratzekirik agertzen den aditzaren erregimenak sortuak: zein kasu eman behar zaie perpaus kausatiboetan, bigarren aditz honen osagarri gramatikalei (esan nahi baitu gramatikazko kasua dakartenei)?:

— *Jonek Mireni etorrarazi dio*

edo

— *Jonek Miren etorrarazi du*

esan behar da? Edo biak dira ontzat ematekoak?

Gehienetan euskalki guztiak jokabide bera baldin badute ere puntu horretan, batzuetan ez da horrela gertatzen eta dudak izan ditzake batek osagarri horietarik batzuk kausatiboetan nola agertu behar diren finkatzerakoan.

1. Lehenik kezkarik sortzen ez duten elementuak laburki bederen aipa ditzagun.

1.1. Aditz eratzekiaren objektuen kasuan, euskalki guztiak bat datoz: objektu zuzenak —3. pertsonakoak dira beti perpaus kausatiboetan— absolutiboan agertzen dira:

— Sagarrak *janarazi dizkidazu*

— Liburua *irakurrarazi dizut.*

Goiko bi adibideetan *sagarrak* eta *liburua*, *jan* eta *irakurri* aditzei dagozkien bi objektuak, absolutiboan dira. Izen sintagma objektua biziduna denean berdin gertatzen da:

— Haur *sortu berria medikuari ikerrarazi zioten*

— Haur guztiak *elkarretararazi zizkieten irakasleari.*

---

(1) Hala ere, bizkaieraz *erazo* aditza bakarrik ere agertzen da batzuetan, orduan *eragin* edo *eginarazi* esan nahi duelarik: *Erazo eikiozuz zeure biotzari iru gauza oneek* (Añibarro).

Aditz eratzekiaren zeharkako objektuen kasua piska bat desberdina da, zeren arras gutitan agertzen baitira hauek perpaus kausatiboetan. Halere, bazterreko aukera izanagatik, badirudi testuinguru egokietan onartzeoak direla (ikus *EGLU* 1: 216, 106 adibidea).

1.2. Aditz eratzekiari dagokion subjektuarekin ere arazorik ez da agertzen, aditz eratzekia iragankorra denean. Datibo gisa agertzen da orduan beti haren subjektua perpaus kausatiboetan:

— *Niri irakurrarazi zizkidaten amaren gutunak.*

Adibide horretan *aitari* sintagma *irakurri* aditzaren subjektua da, baina sintagma datiboa da perpaus kausatiboan.

2. Arazoak ororen buru aditz eratzekiaren subjektua absolutiboa denean, edo aditz eratzekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean agertzen zaizkigu. Bi egoera hauek aldizka azter ditzagun:

2.1. Aditz eratzekiaren subjektua absolutiboa denean

Tradizio nagusiaren arabera, aditz eratzekiaren subjektua NOR sintagma denean, absolutiboan gelditzen da perpaus kausatiboan:

— *Etorri zara etorerrarazi zaitudalalako*  
— *Mintzaraziko zaitugu*  
— *Langileak lanari jarraikiarazi zituzten.*

Mendebaldeko zenbait euskalkitan datiboa erabiltzeko joera agertzen da holakoetan, aditz eratzekiari dagokion NOR sintagma biziduna edo pertsona denean:

— *Alakoari alde eragin eta erbestean bizi-erazi bear genioke* (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)  
— *Gizon bat da, okerreko bidetik abiatu dena, eta zuzeneko bidera itzul erazi behar dioguna* (G. Aresti, *Tobera*)  
— *Atean Meltxor'eri lenengo igaro arazi nai dio* (A. Labayen, *Euskal eguna*).

Bigarren bide hau euskara batuarentzat ez bide da gomendatzekoa, euskalki horietan ere absolutiboaren atxikitzea izan baita joera nagusia, hala bizigabeekin, nola bizidunekin eta pertsonekin:

— *Joxe lanean jarri arazi nai du* (A. Labayen, *Su emailleak*)  
— *Etzaitut gogait arazi nai* (A. Labayen, *Su emailleak*)  
— *Ezmezean dagoenaren aziak ernerazi udaberriko giro ongarrian* (J. Zaitegi, *Platoneneko atarian*)  
— *Lagun batzuek alkartu arazi, mendia erosi ta piñuz josi zuten* (I. Munika, *Gure mendi ta oianak*)  
— *Orrek, Maritxok nai ez arren moja sartu arazi dik* (T. Alzaga, *Ramuntxo*)  
— *Jenarorekin ezkondu arazi nai nautelako* (T. Alzaga, *Burruntziya*).

Esan gabe doa azken jokabide hau dela Iparraldean kausitzen den bakarra, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala:

2.2. Aditz eratzekiak subjektu ergatiboa izanik objekturik ez duenean.

Hiru egoeratan agertzen ahal da aditz ergatiboduna ondoan objekturik izan gabe: aditz deponente delakoekin (*iraun, irakin, urten* (mendebalean), ...), objektu zehaztugabea ezabatua izan dezaketen aditzekin (*jan, edan, kantatu, ...*), eta objektua lokuzio batean aditzarekin bat egina duten aditzekin (*irri egin, hitz egin, min hartu, ...*).

2.2.1. Objektu zehaztugabea ezabatua duten aditzekin, edo objektua aditzari lotua duten aditzekin, subjektu ergatiboa datiboan agertzen ohi da perpaus kausatiboetan. Hori da, bederen, joera nagusia:

- *Gizon horrek irri eginarazten dit*
- *Euskaraz hitz eginarazi ziguten*
- *Haurrei ongi janarazi behar genieke.*

Iparraldean beste joera bat ere kausitzen da batzuetan, subjektua absolutiboan emanik: *irri eginarazten nauzu, behiak edanarazi ditugu*. Badirudi joera berria dela hau, eta ez osoki zabaldua. Batasuna zen tokian zatiketa ekartzen duenaz gero, bide hau ez da gomendatzekoa euskara batuan.

2.2.2. Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteen kasuan gauzak are nahasiagoak dira, eta baitezpadakoa da, aditzaren izaera semantikoa edo haren subjektuarena kontuan hartzea. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan agertzen ohi da hura perpaus kausatiboetan. Alderantziz, subjektu bizigabea eskatzen duenean, absolutiboan ematen ohi da. Horrela *irakin* eta *sofritu* aditzen subjektuak, adibidez, molde desberdinetan agertzen ohi dira perpaus kausatiboetan:

- *Ura irakinarazi behar da lehenik*
- *Inori ez diogu debaldetan sofriarazi behar.*

*Ura* sintagma *irakin* aditz deponentearen subjektua da eta absolutiboan agertzen da perpaus kausatiboan. Ondoko adibidean, berriz, *inori* sintagma datiboa dagokio *sofritu* aditzaren subjektuari. Erregimen desberdinak dituzte, beraz, perpaus kausatiboetan, subjektu mota desberdinak eskatzen dituzten objekturik gabeko aditz ergatibodun horiek.

Mendebaldean aditz deponenteen subjektu bizigabeak ere datiboan agertzen dira batzuetan:

- *Baña gizonaezkoak ere aita izan nai du ta onela bere biziari iraun erazi ondorengoentz birtartez* (M. Atxaga, *Gaztetxo*).

Hala ere, ez da joera hori aldebat zabaldua, eta badirudi euskara batzerakoan beste joera hobestekoa dela:

- *Gerardoren aburuz, aipatzen diranetako koplak batzuk galdu baziran, egilleak (...) paperean iraun arazi etzitulako galdu ziran* (Gaztelu, *Musika ixilla*)
- *Orrelako erriek gaur arte iraun izan dute (...) eta pentsatzekoa da Jainkoak iraun arazi dituala* (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*).

Alderantziz, Iparraldeko zenbait mintzamoldetan joera nabaria da aditz deponenteen subjektu bizidunak bizigabeak bezala absolutiboan uzteko:

- *Sofriarazi ninduten.*

Holakoetan ere batasunaren bidea hausten baita, hobe da beti datiboan uztea aditz deponenteen subjektu bizidunak.

Aditz deponenteez ari baikara, gogorarazi behar da, bestalde, euskalki guztiak ez datozela bat aditz deponenteen finkatzeko orduan. Adibidez *bazkaldu* edo *afaldu* aditzak NOR aditzak dira mendebaldean, eta NOR aditzak berriz ekialdean. Halaber, *irten* / *urten* aditza ergatiboduna da toki batzuetan eta ergatiborik gabea beste batzuetan. Erran gabe doa, arabera aldatzen direla aditz horiek perpaus kausatiboetan dituzten erregimenak.

*Bazkaldu* NOR aditz gisa darabilten euskalkietan absolutiboan agertzen da haren subjektua perpaus kausatiboetan. Aitzitik, aditz hori NOR aditz gisa darabilten euskalkietan, datiboan ematen ohi da:

- Bazkaldu ez bazara, orain bazkalaraziko zaitut  
— Bazkaldu ez baduzu, orain bazkalaraziko dizut.

**Hau da, horrenbestez, Euskaltzaindiaren erabakia *arazi* aditz arazlearen erregimenaz:**

1. *Arazi*-ren subjektua beti ergatiboan doa: *Koldok etorrarazi du Mikel.*

2. Oin aditzaren objektua beti absolutiboan: *Sagararak salarazi ditugu.*

3. Oin aditza iragankorra denean, subjektua datiboan darama: *Niri liburua irakurrarazi zidaten.*

4. Oin aditzaren subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan ere: *Mikel jarrarazi dute.*

5. Oin aditzaren subjektua ergatiboa baldin bada eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:

a) Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak: *Mikeli janarazi diote; Mikeli irri eginarazi diote.*

b) Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponentekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da. Aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboan ageri da (*Inori ez diogu pairarazi behar*), baina subjektua bizigabea bada, absolutiboa (*Ura irakinarazi dute*).

Ikus Euskaltzaindiak 1994ko abenduan gai honi buruz harturiko bestelako erabakiak: ikus ARAU bilduma honetako 125. or.

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995eko irailaren 29an onartua)